



2015eko obrak

Orioko kontradiketa berreraikitzea

Laburpen-fitxa



Deskribapena		Zenbatekoa	Epea
Proiektua idaztea	TYPSA (2014)	10.200 €	3 aste
1. erreformatua idaztea	TYPSA (2014)	6.200 €	2 aste
Obrak egitea	Construcciones MOYUA		
Esleipena	Construcciones MOYUA	2.159.481,41 €	4 hilabete
Kontratua sinatzea	2014ko uztailak 30		
Obrak likidatzea	2014ko abuztuak 1	2.347.706,70 €	13 hilabete
Obren zuzendaritza	Idoia Ortubia Rodríguez	Obren zuzendaria	
Eusko Jaurlaritza	Joseba Olaskoaga	Obren zuzendaritza-taldea	
	Leire Caminos eta Zuriñe Villa	Praktiketako bide-ingeniariak	



GAUZATUTAKO OBREN DESKRI BAPENA

Obrak nagusiki Orioko kontradikearen atalaren indartze-lanak izan dira. Horretarako, masa-hormigoizko blokeak kokatu dira, agregatu siderurgikoarekin eginak, eta, modu horretan, dentsitate handiak lortu dira. Guztira hormigoi siderurgikozko 1.481 bloke kokatu dira, lau motatan bananduta: 20 t-ko 593 bloke, 30 t-ko 692 bloke kubiko eta 30 t-ko 195 bloke zulatu.

Gauzatutako obra honako hauetan labor daiteke:

- Obraren beraren harri-lubeta berreskuratzea eta birkokatzea, nukleoa, bigarren mailako mantuak eta ezponda formako kontradikearen barne-mantua osatzen duten bloke zulatuei eusteko banketa osatuta.
- Obraren beraren harri blokeak berreskuratzea eta birkokatzea, kontradikea babesteko mantuak osatuta.
- 20 t-ko pisuko (2,7 t/m³-ko dentsitateko) HM-30/B/20/Qb masa-hormigoizko blokeak fabrikatzea, garraiatzea eta kokatzea, 2H:1B ezpondako kontradikearen enborrharen kanpoko mantu nagusia osatuta eta bi geruzatan ezarrita.
- 30 t-ko pisuko (2,7 t/m³-ko dentsitateko) HM-30/B/20/Qb masa-hormigoizko blokeak fabrikatzea, garraiatzea eta kokatzea, 2H:1B ezpondako kontradikearen enborrharen eta muturraren kanpoko mantu nagusia osatuta eta bi geruzatan ezarrita.
- 30 t-ko pisuko (2,7 t/m³-ko dentsitateko) HM-30/B/20/Qb masa-hormigoizko bloke paralelepipediko zulatuak (0,75 x 0,75 m-ko bi zulokoak) fabrikatzea, garraiatzea eta kokatzea, 3H:2B ezpondako kontradikearen barruko mantu nagusia osatuta eta geruza bakarrean ezarrita.

INGURUMEN HOBEKUNTZAK

- 24.000 t zepa siderurgiko (hondakin siderurgiko) erabili da blokeentzako hormigoia egiteko, eta modu horretan hura zabortegira botatzea saihestu da.
- Ekaitzak barreiatutako harriak berrerabili dira, eta horrela horiek harrobitik atera behar izatea saihestu da.
- Hormigoizko bloke zulatuak erabili dira: Olatuek eragiten duten energia bloke-geruza bakar baten bidez indargabetzea da neurri horren helburua, ahalik eta hormigoi gutxiena erabiltzeko.

PAISAIA INTEGRAZIOA

Kontuan hartu zen hondartzatiko ikuspegiari izan zitekeen eragina. Horregatik, zehaztutako gaingoratasunak ez du gailentzen kanpoko dikearen kokoteak hasiera batean zehaztutako ikusmen-muga.

OBREN EZAUGARRI OROKORRAK

Harri-lubeta berreskuratzea	6.000 m ³
Hormigoi siderurgikoa	14.500 m ³
30 t-ko blokeen kopurua	692 unitate
20 t-ko blokeen kopurua	593 unitate
30 t-ko bloke zulatuen kopurua	195 unitate